

## Elkartasuna eta gatazka elizan

Paulo Agirrebaltzategi\*

Soziologoek kontzeptu nagusietakoa dute “gatazka” kontzeptua: Gatazka sozialak eta politikoak, ekonomikoak eta laboralak, ideologikoak eta erlijiozkoak; familiako gatazkak eta nazioartekoak; kultur eta hizkuntz gatazkak. Soziologi hiztegi guztietan aurkituko duzu “gatazka” hitzaren sarrera. Elizaren doktrina sozialean ere gatazka sozialek eta nazioartekoez orrialde asko hartu ohi dituzte.

Besterik gertatzen da teologoek eremutara aldatzen garenean: kontzeptu

teologikoetatik kanpo-edo geratzen da nonbait. Teologi hiztegi klasikoetan ez duzu aurkituko “gatazka” hitzarentzako sarrerarik. Askapen-teologia korronteko autoreek berenganatu dute, ordea, eta aztertu modu aski sistematikoaz aurreneko aldiz gatazkaren fenomeno Teologiaren eta Eklesiologiaren barrutik<sup>1</sup>; eta Teologi hiztegian sarrera esplizitua eman ere bai<sup>2</sup>. Beti ere, Eliz komunioaren eta batasunaren teologiari lotuta.

Izan ere, “komunioa” (elkartasuna/elkartea) eta “batasuna” bere kon-

---

\* Editorea. Teologian doktore. Frantziskotarra. Donostia.

<sup>1</sup> Gustavo Gutiérrez Askapen-teologiaren abiatzaileak badu atal bat “Fraternidad cristiana y lucha de clases” bere *Teología de la liberación. Perspectivas* liburu ospetsuan (352-363 or.). Honela hasten du atala: “La fraternidad humana, que tiene como fundamento último nuestra situación de hijos de Dios, se construye en la historia. Esta historia presenta hoy caracteres conflictivos que parecen oponerse a tal construcción”. Eta honela amaitzen da: “Partir, en cambio, de este condicionamiento concreto de la presencia de la Iglesia en una sociedad dividida y conflictual y al mismo tiempo empeñada en crear un mundo más humano, puede señalar nuevos rumbos a la eclesiología”.

<sup>2</sup> Ik. *Mysterium Liberationis. Conceptos fundamentales de la Teología de la Liberación* (2 tomo), Ed. Trotta, Valladolid 1990. Bertan irakur daiteke bereziki Jon Sobrinoren artikulua: “Comunión, conflic-

tzeptu handietakoak ditu Teologiak. Elizari eta Sakramentuei buruzko idatzi-tituluetan, liburu osoak eta kapitulu eta artikulu zabal-ugariak aurkituko dituzu gai horien inguruan, baita Teologi hiztegiatako sarreretan ere. Azken hoge urteotan nolabait ofizialdu ere egin du Erromako Fedeko Doktrinaren Kongregazioak Komunioaren ikuspegi Elizaren izaera interpretatzeko giltzarritzat, 1985eko Erromako Sinodo orokorraren ondoren. Areago, badirudi Komunioaren teologia horretan oinarrituta jarri dituela hark susmopean edo kondenatu Askapenaren teologo zenbaiten irakatsiak<sup>3</sup>.

Bada liburu bat, ia 25 urte dituen, baina gure honako gogoeta honi bereziki hurbildik dagokiona, Euskal Herriko Elizari begira landuta dagoelako: *Conflicto cultural y comunidad cristiana. Reflexión teológico-pastoral*<sup>4</sup>. Bertako lankidetzako idatzien artean Jose Maria Setienen artikulu doktrinala dugu bereziki kontuan hartzekoa hemen: “Comunidad cristiana y conflicto

cultural” (15-35 or.). Gatazka sozialen ikuspegi teologikoa eskaintzen du lehen orrialdeetan, Askapen-teologiaren ideietatik oso gertukoa.

Ba ote du, beraz, esanahi teologikorik gatazkaren fenomeno sozialak Elizarentzat? Eta edukitzekotan, negatiboa bakarrik ote du, Eliz komunioaren ukapen soiltzat edo horren aurkako bekatutzat bakarrik, alegia? Edo, alderantziz, nola ulertu behar da horren adierazgarritasun positiboa Eliz komunioa hobeto ulertze eta areagotze aldera?

## 1. Ebanjelioaren eta elizaren mui-nekoa da gatazka

Hemen ez gara ari Elizak bere izaeraz daramatzan tirabirez: bere izate historiko errearen eta izatera deitua dagoen Jainkoaren Erreinu idealaren artekoaz, edota Eliza barruko izaera instituzionalaren eta izaera profetikoaren artekoaz... Bi polo horien arteko berezko tirabira bihur daiteke batzuetan bene-

to y solidaridad eclesial”, 217-243 or. Ik. era berean, Díaz Ahumada, Jaime Humberto, “Conflicto y violencia, participación y solidaridad en la teología de Ignacio Ellacuría”, *Lumen* XLV (1993) 137-180. Alvaro Quiroz Magañañak aztertu zituen Askapen-eklesiologiaren hainbat alderdi bere *Eclesiología de la Teología de la liberación* liburuan, Ed. Sígueme, 1983; Elizaren lau “ezaugarrien” teologia aztertzean, honako titulua eman zion “batasunari” buruzko atalari: “Real unidad en el conflicto”.

<sup>3</sup> Doyle, Dennis M., “La eclesiología de comunión y el silencio impuesto a Boff”, *Selecciones de Teología* 125 (1993) 27-33. Aurten betetzen dira, hain zuzen, 20 urte Fedeko Doktrinaren Kongregazioak Askapen-teologiaren zenbait punturi buruzko irizpide kritikoak agertu zituenetik, bere “Libertatis nuntium” Instrukzioan.

<sup>4</sup> Idatz (Donostia) eta Desclée de Brouwer (Bilbo), 1981. Autoreak: J. M. Setién - R. Aguirre - X. Bar-surko - M. Garijo.

tako gatazka, eta okerrean haustura, Elizaren batasunaren ukapen. Hemen, ordea, bestelako gatazkez ari gara.

Jesu Kristoren garaian bereziki gatazkatsua zen Israelgo egoera soziala eta politikoa. Erromatar Inperioaren menpean zegoen, eta horren aurkako erreakziorik eta ahaleginik ez zen falta gizartean. Baina gatazka politiko-erlijiozko handi horretaz gain, etengabe ageri dira Ebanjelioan bestelako gatazka sozialak; horiek nabarmentzen ditu Jesusek behin eta berriro, horien jasataile diren zapalduen, pobreen, baztertuen eta txikien defentsa eginez. Agintari erlijiozko eta politikoekiko gatazka eraman zuen azken batez bera ere gurutzera.

Jesus ondo jabetuta ari zaigu bere mezuak kontradikzioak piztu behar dituela, eta bereganatuak ditu horrelako ondorioak: “Munduari bakea ematera etorria naizela uste al duzue? Egia esan, bakea ez, banaketa baizik” (Lk 12, 51). Jesusen mezua onartzen dutenen eta ez dutenen arteko banaketa.

Berez dakarren banaketa horretaz gain, Ebanjelioa ez dator zuzenean gatazka sozial berririk piztera, baina ezta gizartean daudenak estaltzera ere<sup>5</sup>. Areago, bereziki pobreei eta baztertuei

zuzentzen zain askapen-mezuak nabarmendu egiten ditu zuzengabekeriaren ondorio eta seinale diren gatazkek. Ederki asko adierazi zuen Bitoriano Gandiaga poetak bere otoitz-olerki honetan:

Hor zatoz,  
bizkarrean  
mendiko sermoia duzula:  
“Zorionekoak, behartsu zaretenok”  
“Baina zoritxarrekoak zuek, aberatsok”.

Sermoi hori  
gizaki orori  
egitera zatoz.  
Ez zatoz haserre,  
serio zatoz halere.  
Batzuei zoriontsu  
deitzen diezu,  
besteei zoritxarreko.  
Sermoi hori  
ez da, ostera,  
gizadia banatzeko,  
baizik banatuta dagoela  
salatzeko.

Justiziaz kontrako  
banaketa gaitzetsiz,  
Justiziaren aldeko batuketa onetsiz,  
zorionekoetan lehenengo  
gurutzera eraman  
beharko duzunerako  
bizkarra egokituz  
jaio zarenerako.

<sup>5</sup> “Le Nouveau Testament n'est pas favorable au conflit, même si Jésus paraît parfois impatient” dela-koak (Jean-Claude Lavigne eta Ignace Berten, *Mondialisation eta Universalisme. Échos Bibliques*, Lumen Vitae, Bruxelles, 2003, 72. or.) gutxienez bestelako zehaztapen eta argibiderik eskatzen du.

Ebanjelioaren beraren ezaugarria da, beraz, gatazka. Hainbat egoera sozialen bidegabekeria nabarmendu eta salatuz, gatazkan dauden bi aldeak Jainko-Erreinuaren mezuaren aurrean jartzen ditu Jesusek: askapen-mezua da hori bientzat, fedearen bidez zapalduarentzat, fede eta konbertsioaren bitartez zapaltzailearentzat.

Jesusen esperientzia izan zuen Elizak hasieratik, eta bere predikuaren ondorioz aurrez aurre gertatu zen gatazkan agintari juduekin aurrenik, eta erromatarrekin ondoren. Ebanjelioarekiko leialtasunaren izenean jasan zuen eraso eta martirioa horien aldetik. Eta berdin geroko historian barna, egoera politiko-sozial ezarriaren eta horretaz baliatzen direnen zuzengabekeria salatu duenean. Jakina, historian barna Elizak edo eliztarrek jasan dituzten jazarpen guztiak ez dira gertatu pobreen eta zapalduen alde Ebanjelioaren izenean gatazka sozialak nabarmendu eta horien azpiko zuzengabekeria salatzeagatik, eta bai sarritan Eliza edo eliztar erasotuak beste erataria nahastuak zeudelako gatazkaren sarean, batzuetan ahaltsuen eta pribilegiadunen alde.

## 2. Elizaren gatazkak eta eliza barrukoak

Gatazka-historia luzea du Elizak, talde sozial eta instituzional denez bere baitan, gizarteko talde eta erakundeen eta munduko herrien eta estatuen artean. Esperientzia handia du landua horretan: “Gatazketan aditua” dela, esan genezake<sup>6</sup>. Horren jokabidea, gatazkari buruzkoa, oso ezberdina izan da, garairen eta lekuen arabera.

Zer da gatazka? Interes, iritzi edo izakera kontrajarriak dituztenen arteko tirabirazko egoera da, hiztegiak definitzen digunez –hasieran aipaturiko guztiak sar ditzakegu oro har horietan; hemen ez gara, ordea, norberaren barne-gatazka psikologikoei buruz ari-. Talde sozialen diferentzietan egonik gatazken urruneko sorburua, horien interes bidezkoen eta gizarteko –eta herrien arteko– aniztasun aberasgarriaren adierazgarri izan daitezke diferentziok; horrelako ezberdintasun bidezko guztiak berez daramate nolabaiteko tirabira, batzuetan elkar gaizki ulertzetik datorrena; elkarrizketa irekian argi daiteke eta alde guztien bake onerako konponbidean lasaitu horrelako tirabira, benetako gatazka sozial izatera iritsi gabe.

<sup>6</sup> “Gizatasunean aditua” izendatu zuen Paulo VI.ak Eliza. Era berean deitu genezake “gatazketan aditua”. Hizkuntzen arteko gatazken inguruan Elizak bere Liturgian eramandako jokabideari buruz, ik. Xabier Basurko, “El conflicto lingüístico en la historia de la Liturgia”, *Conflicto cultural...*, aip. lib., 203-219 or.

Aniztasun eta ezberdintasun sozia-  
len kudeaketa okerrean dago, ordea,  
gatazken hurbileko eta benetako sorbu-  
rua. Funtsean, talde indartsuenak –edo-  
ta hori ordezkatzan duten agintari edo  
boteredunek– beste taldeari (edo beste-  
lako taldeei) beren interesak, iritziak  
eta jokabideak ezarri nahi izatetik, eta  
horren aurkako erreakziotik, dator ga-  
tazka soziala. Azken batez, batzuen  
mesedetan eta beste batzuen kaltetan  
ezarria dagoen situazioari eustearen al-  
dekoen eta hori aldatzearen aldekoen  
artean piztu ohi da gatazka.

Hiru “mailatako” gatazkak bereiz  
genitzake, Elizari dagokionez:

### 2.1. Eliza barruko gatazkak

Apostoluen Eginak liburutik bertatik  
ditugu ezagunak Eliza barruko ho-  
rrelako gatazkaren batzuk, bereziki  
San Pauloren eta San Pedroren artean  
gertatu zena, eta Jerusalemgo Kontzi-  
lioan elkarriketaren bidez konpondu  
zutena.

Komunioaren zeinu<sup>7</sup> izatearekin  
batera (ikuspegi teologikoa), talde so-  
ziala eta erakunde historikoa (ikuspegi  
soziologikoa) da Eliza; eta bestelako

talde sozialetan eta gizarteetan bezala,  
Eliza barruan ere gerta daitezke eta  
ugari gertatu izan dira gatazkak: dok-  
trinalak (edo teologikoak), instituzio-  
nalak (barne-erakundeen artekoak),  
hierarkiko-pertsonalak (Eliz agintarien  
eta eliztarren artekoak).

Aurrenekoak, doktrinalak, nabar-  
mendu izan dira bereziki; baina beste-  
lako gatazkei aski lotuak doaz norma-  
lean. Horiek konpontzeko modu eta  
neurri ezberdinez baliatu da Eliza: Ba-  
tetik, Sinodo eta Kontzilioek garran-  
tzia handia izan dute, fedeko doktrinei  
buruzko gatazkak elkarriketaren eta  
eztabaidaren bidez konpontzeko; maiz,  
ordea, eskomikuak eta erabateko kon-  
denak atera dira horietatik, “arerioen”  
aurkakoak, eta Eliz komunioa etena  
geratu da orduan (heresiak eta zis-  
mak). Elizaren hainbat hausturaren  
azpian, ordea, fedez haratago, kultur  
gatazkak (edota fedea adierazteko mo-  
du edo teologia ezberdinak) egon izan  
dira batzuetan; baita gatazka politiko-  
ak ere<sup>8</sup>.

Gatazkak gertatu izan dira, baita  
ere, Eliz hierarkiaren eta kristau-talde  
edo eliztar banakoen arteko arazo dok-

<sup>7</sup> Honela hasi zuen Setienek bere aipaturiko artikulua: “La Iglesia está llamada a ser signo de la comuni-  
ón definitiva de los hombres y de los pueblos en Cristo Jesús” (15. or.).

<sup>8</sup> Setien apezpikuaren hitzak dira berriro ere honako hauek: “La conflictividad eclesial es, en parte  
muy considerablè, un efecto inducido por la conflictividad socio-cultural, en la diversidad de mani-  
festaciones y causas que ésta puede tener” (*Conflicto cultural...*, aip. lib., 20. or.). Ik. liburu berean R.  
Aguirrerren idatzia, “Las transformaciones culturales, ideológicas y económicas del cristianismo pri-  
mitivo y su interrelación con los conflictos teológicos”, 181-202 or.

trinazko nahiz disziplinarrak zirela tar-teko. Elizaren barruko bi printzipiori buruzko eztabaida bihurtu izan da sarritan hori: Hierarkiari zor zaiqn menpekotasuna, batetik, eta kristauari zor zaizkion askatasuna eta eskubideak, bestetik. Alde batetik nahiz bestetik jarrera itxiak eta tematiak nagusitu izan direnean, hausturak halabeharrezkoak izan dira. Zoritxarrez, elkarrizketa anaiartekoaren ordezt, autoritatezko gaitzespena (bazterketa eta zigor morala) erabili izan ditu errazegi batzuetan hierarkiak horrelakoetan.

Ugaria da gatazken esperientzia Eliza barruan. Kontzilio, sinodo eta elkarrizketa komunio-eraikitzaileekin batera, ez da ahaztekoa heretikoen aurkako tortura eta heriotza-zigorren historia ere: Kataroen aurkako gurutzadak, Inkisizioa, Europako “Erlijio-gerak” (kristau-konfesioen artekoak).

## 2.2. Elizaren eta “munduaren” arteko gatazkek

Vatikanoko II. Kontzilioak bere “Eliza gaurko munduan” Konstituzio pastoralaren 2. puntuan azaltzen duen erara ulertzen dugu hemen mundua: “Gizakien mundua edo giza familia osoa, berau bizi deneko gauza guztiekin batera...”.

Lurraldeetan zehar eta garaietan barna guztiz anitza eta aldakorra da mundu hori: arrazatan, herritan, tributan, giza taldetan, estatu eta bestelako

erakunde politikotan, kulturatan eta hizkuntzatan. Bere ebanjelizazio-lanean eta bere jardun pastoralean mundu ugari horrekiko harremanetan izan dituen gatazkei buruz ari gara hemen.

Askapen- eta salbamen-mezua da Ebanjelioa, giza talde, herri eta kultura guztiei zuzendua; baina aldi berean galdera kritikoa da gizarte eta kultura guztientzat, gizon-emakume banakoentzat den bezala. Horregatik eskandalurik eta kontrako erreakziorik ere piztu izan du Elizaren ebanjelizazioak. Erakunde publikoek horren kontrako debekuak eta neurriak ezarri izan dituztenean, “munduarekiko” gatazka erabateko haustura bihurtu izan da batzuetan. Eta jazarpena eta heriotza ere jasan behar izan dituzte Elizak eta eliztarrek.

Ebanjelioarekiko leialtasunaren ondorioztat hartu izan du horrelako gatazka Elizak eta martiritzat balioztatu izan du. Baina Elizaren eta munduaren arteko gatazkek historian zehar ez dira seguruenik beti hain adiera bakarrekoak: Ebanjelio garbiaren eta mundu bekatariaren artekoak, alegia, Eliza bera ez delako Ebanjelio hutsa, ez Jainkoaren Erreinua soilik, erakunde historikoa -eta bekataria- baizik, tradizio geografiko-historiko eta kultural jakinetan eratua. Mendebaldeko edo Europako bere adierazpen -jantziteria?- kultural horretatik nolabait biluztu gabe -areago, munduko “erreinu” jakinen interes kolonialista edo inpe-

rialistatei lotuegi– joan denean Ebanjelioa zabaltzera, bestelako interpretazioa bilatu behar zaio “munduaren” eta Elizaren arteko gatazkari. Ebanjelioaren inkulturazio jatorra eta “kristaukulturan” akulturazioa ondo bereiztekoak dira, sarritan erraza ez bada ere. Bestela, Ebanjelioa zuzentzen zaion kulturaren eraso gertatzen da ebanjelizazioa, edota kultura eta zibilizazio ezberdinen arteko gatazka.

Bada bestelako gatazka, mundu modernoaren eta Elizaren artekoa deitu ohi dutena –Eliza Katolikoaz ari gara hemen bereziki–. Horren interpretazio oso ezberdinak egiten dituzte aztertzaile sozialek nahiz teologoek. Edozein gatazka aztertzean egin behar den bezala, zorrotasun kritikoz eta irizpide ebanjeliko ahal den garbieraz egin behar du kristauak gatazka horren analisia, bera ere hor barnean dagoela jakituz. Inkulturazio garbiaren –biluziaren– legeak hemen ere balio osoa du; Ebanjelioaren sustrai-sustraietara itzuli behar du Elizak, munduaren zerbitzari dela jakinez, eta horrenganako maitasunez eta irekitasunez.

### 2.3. Elizari “dagozkion” gatazka sozialak

Mundu eta gizarte gatazkatsuenganako ebanjelizatzaile kritikoaren eginkizuna ez ezik, gizarteko eta Herrien arteko gatazken aurreko instantzia etikoa-ren –batzuetan diplomatikoa– eginkizuna hartu izan du Elizak. Askotan be-

hintzat horrelako gatazkek ez dira Elizatik kanpokoak edota Elizari zeharka bakarrik dagozkionak. Maiz zuzenean “dagozkio” Elizari, bi aldetatik: bere misioa gizarte eta mundu gatazkatsu horri Ebanjelioa zabaltzea duelako, batetik, eta horrelako gatazkek kristau-komunitatea –komunioa– bera zeharkatzen, eta nolabait zauritzen, dutelako sarritan.

Gainera, gatazka sozialak zuzenbideratzea ebanjelizazioaren beraren eskakizuna dela dirudi, mezu ebanjelikoa urruneko hitz hutsetan geratuko ez bada eta horren eragina azaleko gertatuko ez bada. Lehtasunez pobre, baztertu eta zapalduen zuzentzen zaien kristau ebanjelizatzaileak bere burua inplikatu behar du “arazo sozialean” eta gizarteko gatazkek Ebanjelio askatzailearen arabera zuzenbideratzea bere misiotzat hartu behar du.

Esan daiteke agian, gatazkek zuzenbideratzea dela Elizaren misioaren egiteko nagusietakoa, beti Ebanjelioko irizpide behinenotan oinarrituz: pobreen aldeko lehtasunezko aukera abiaburutzat eta gizon-emakumeen askapen osoa helburutzat; gatazka sozialen “pedagogia” soila lantzetik harantza, gatazka sozialak Eliz komunio bihurtzeraino.

## 3. Gizarteko gatazkek Elizako gatazkek dira

Gizarteak eta munduak dituzten gatazkek nolabait bereak ditu Elizak,

Vatikanoko II. Kontzilioaren *Gaudium et Spes* Konstituzioaren 1. zenbakiari bagagozkio. “Gizatasunean aditua” den Elizak bere historia luzean gatazka ezagutu ditu bara bizi zeneko gizarteetan, herrietan eta munduan. Bi alditan behintzat erabiltzen du “gatazka” hitza Konstituzioak: harreman sozio-ekonomikoei buruz (68. zk.) eta nazioarteko harremani buruz, armamentu-lasterketaz diharduelarik (81. zk.). Gatazken formarik larriena gerra da, jakina, gatazka armatua, alegia, eta horretaz dihardu osorik Konstituzioaren sailtako batek (79-82 zk.).

Elizak gatazka sozialak bere egite horretan, munduarekiko irekitasunaz eta sinpatiaz –edota ebanjelizazio-taktikaz– gain, badago bestelako arrazoirik: Eliza bera munduan bizi dela, eta mundutarrek osatzen dutela hori; eta, beraz, gizon-emakumeen eta gizarte-taldeen arteko gatazkek Eliz komunitatea bera zeharkatzen dutela alderik alde. Beste ikuspegi batetik esanda badaude ere, baliozkoak dira hemen J. M. Setienen hitzok: “los hombres y los pueblos están en conflicto dentro de la Iglesia porque sencillamente están en conflicto fuera de ella”<sup>9</sup>.

#### 4. Eliza: komunioa eta gatazka

Komunio-zeinu da Eliza munduan eta munduarentzat; baina aldi berean guztiz bere baitako fenomenoa eta esperientzia du gatazkena; komunioa eta gatazka ez dira bata bestearen kontrako eta ukatzaile Elizarentzat, bata positiboa eta bestea negatiboa<sup>10</sup>.

Hasteko, eta gorago ere esan dugunez, gatazka soziala ez da berez txarra eta gaiztoa; egoera txar eta gaiztoren baten sintoma eta zeinua da sarritan, gizarteko injustiziaren seinatzaile eta salatzaile; onerakoa eta mesedegarria, beraz, ebanjelizazioari begira. Horregatik ez da ebanjelikoa komunioaren izenean gatazka sozialak estaltzea eta ezkutatzea, eta azken batez ukatzea.

Bide horretatik, gatazka eta horren funtzio positiboa onartzeak zera esan nahi du, Eliz komunioaren beraren eredu jakin bat eta horren errealizazio historiko konkretua susmopean jartzea eta profetikoki kritikatzeko, injustiziazko egoera sozialen estaltzaile gertatzen bada, edota berdintasun uniformizatzailearen ezartzaile. Izan ere, gizon-emakumeen nortasun indibiduala eta kolek-

<sup>9</sup> *Conflicto cultural...*, aip. lib., 19-20 or.

<sup>10</sup> Berriro ere Setienek dioenez, “La oposición entre la comunión y el conflicto no debe entenderse, sin embargo, como si la comunión fuera un factor positivo puro y el conflicto una pura negatividad” (ibid., 17. or.).



tiboa bermatzen du Ebanjelio askatzaileak, eta gizarteko eta herrien arteko kultur aniztasuna konfiguratzeko; horregatik nolana hiko Eliz komunioak ezin du giza eta kultur balio ugari ezberdinen ukatzaile izan.

Areago, gatazkak onartu eta baliagarritzat hartzeak Eliz komunioa bera zerbait dinamikotzat hartzera garamatza, eta horiez nolabait baliatzera, komunioa bera gero eta sakonagoa eta jatorragoa egiteko. Azken batez komunioaren jatorrasuna eta sakontasuna neurtzeko seinaleztat har daitezke gatazkak. Inolako gatazkarik gabeko komunio barea ez da seguruenik sintomarik onena mundu eta historia honetan erromes doan Elizarentzat. Jainkoaren Erreinua bere betera iritsiko denean gertatuko da komunio osoa eta garbia, gatazkarik gabea; bitartean, etengabe gatazkak “zuzenbideratuz” egin beharko du Elizak mundu honetako bidea. Horrela, eta J. M. Setienek dioenez, gatazkak gainditzeko etengabeko ahalegintzat har daitezke Eliz komunioa egitea bera<sup>11</sup>.

Azken batez, gatazka sozialen transformatzaile izatea dagokio funtsean Elizari, horiek komunio eta solidaritate bihurtuz barrutik Eliz elkarteetan. Adierazgarria zaigu elkarte/elkartasun

hitzten analisisia. Izan ere komunioa nahiz solidaritate: biak adierazten ditu ‘elkartasuna’ hitzak, eta biak hartzen ditu Eliz elkarteak. Injustiziazko egoera gatazkatsuak solidaritate-dinamika bihurtuz bakarrik joango da gero eta barne-komunio (elkartasun) maila bikainagoa eraikiz Eliz elkarteak.

Horrela bada, eta berriro ere Jose Maria Setien aipatuz, gatazka “leku teologiko” bihurtzen da Elizan<sup>12</sup>, eta gatazka sozialak “konpontzeko” bitartekaritza, pedagogia edo diplomazia lantzea baino askoz harantzago doa horren misioa.

## 5. Gure arteko gaurko zenbait gatazkaren barruan

Gaurko gure mundua gatazka sozialez, politikoz, etnikoz, nazio- eta herriartekoz, erlijiozkoz, ekonomiko, ekologiko, kulturez eta hizkuntzazko zeharkatuta dago goitik behera. Horietako asko eta asko gure Herriari eta Europari dagozkie barrutik nahiz albotik. Gure Europak baditu bere gatazka bereziak. Euskal Herria ere nahasita daukagu kanpoko nahiz barneko gatazketan. Horietako askok, herrien eta lekuen arabera, alderik alde daukate zulatua Eliz komunitatea. Esan du-

<sup>11</sup> “La comunión puede interpretarse así como un esfuerzo permanente de superación de conflictos...” (ibid., 16. or.).

<sup>12</sup> “La fenomenología del conflicto eclesial se convierte así en una especie de lugar teológico que ha de dirigir la acción eclesial no menos que las exigencias de la comunión” (ibid.).

gunez, horren misioa da gatazko gainditzea eta komunikazio, elkartasun eta azken batez komunio bihurtzea, pobreen, zapalduen, baztertuen eta minorizatuen lehentasunezko hautapenetik.

Horren ildotik, iradokizun labur batzuk besterik ez ditugu hemen egingo hiru mailatan: Mundu osoari, Europari eta Euskal Herriari begira –ez ditugu ukituko Eliz komunitatearen barneko gaurko gatazka-gai bereziak: Elizaren “demokratizazioaren” ingurukoak, zenbait teologia eta teologoren eta hierarkiaren artekoak, giza eskubideen arazoak Eliza barruan, oinarriko Eliz elkarten eta Eliza instituzionalaren artekoak, emakumeen lekuaren arazoak, apaiz ezkonduen ingurukoa, etab.–.

*Mundua:* Nazioarteko liberalizazio ekonomikoa delakoak gatazka berriak sortu ditu, bereziki herrialde aberatsen eta herrialde pobreen artean, eta emigrazio-mugimendu berri zabala eragin du, beronen gatazka-ezaugarri guztiekin. Bestalde, globalizazio mediatiko eta kultural uniformizatzaileak ere gatazka lazgarriak sortzen ditu Herrien kultur identitateak astintzean. –Nazioarteko terrorismoa eta horren kontra omen doazen zapalkunta eta errepresio-politika nazioartekoak gatazka ho-

rien eta bestelakoan adierazpen nabarmentenak besterik ez dira agian–. Pobreen Eliza ebanjelikoa izatera eta kultur eta hizkuntz aniztasuna eta nortasuna bermatzeko eginkizuna betetzera deitua dagoen Elizak badu zeresanik eta zereginik mundu “globalizatu” gatazkatsu honetan.

*Europa:* Herrien arteko hainbat gatazka eta gerren lurralde izan den Europa honen batasun-bidea positibotzat jo izan du Elizak, gatazken konponbiderako<sup>13</sup>. Baditu, ordea, bi erronka handi, beste askoren artean: a) Bertako estaturik indartsuenek kolonizatu eta hustiatu izan dituzten Hirugarren munduko Herrietako premia larriei esku zabalez erantzutea eta horietatik datorren emigrazioari ateak irekitzea; b) Europaren eraikuntzan bertako herrien, kulturen eta hizkuntzen aniztasuna eta nortasuna bermatzea, dinamika estatalista hutsa gaudituz<sup>14</sup>. Europa batuaren proiektuan gatazka-iturri zahar-berriak dira horiek, besteak beste. Proiektu horretan barrutik esku hartuz, komunio-testigu eta -eragile izan behar duen Elizak bere misio profetikoa bete beharko du aipaturiko arazoei eta antzekoei buruz, aldi berean Europako erlijiozko gatazka historikoak gaindituz, ekumenismo irekiaren bidez.

<sup>13</sup> 1997ko Europar Batzarre Ekumenikoak (Graaz, Kroazia) honako hau izan zuen aztergaietako bat: “Nazioen arteko errekontziliazioa eta gatazken konponketa ez-biolentoa bultzatzeko bidea”.

<sup>14</sup> Horri begira egin zuten, bestelako ekimenen artean, 1995ean, Italiako Brescia-n sinposio berezia, Europako hizkuntzak eta Eliza gaiaren inguruan: “Batak bestea ukitzen duten eta gatazkan dauden hizkuntzak Elizan”.

*Euskal Herria*: Ezaguna da Elizak izan duen indar sozial eta kulturala azken mendeotan Euskal Herrian. Horren arabera, hemengo gatazka politiko-soziala bere erantzukizun berezia izan du, alde batetik; eta bestetik, gatazka horiek barru-barrutik ukitu izan dute Eliz komunitatea bera. Ezaguna da baita ere, Eliz komunioaren zerbitzu ministeriala bete behar zutenak behin baino gehiagotan indartsuen eta garaileen aldetik jarri izan direla gatazkan, barne-komunioa bera krisi larrian ipiniz<sup>15</sup>. Lehengo indar publikorik ez du Elizak gaurko Euskal Herri honetan. Egoera horretatik bere erantzukizun historikoak bereganatzea dagokio; baina batez ere egokiera ona du, pobre, erasotu, zapaldu eta minorizatuena aldeko aukera berria egiteko. Besteak beste, bere hemengo inkulturazio-modu historikoa kritikatzeko eta horren dinamika berritzeko aukera du, hainbat gatazkaren gainditze aldera<sup>16</sup>.

## 6. Azken hitz bi: biktimak eta amnistia

Gatazka soziala egoera oker eta injustiziazko baten seinale baldin bada, beti daude biktimak, egoera horretan bereziki kaltetuta gertatzen direnak. “Biktima” hitzak oihartzun apartekoa du, gatazkaren azpiko egoeraren zu-

zengabekeria nabarmentzen duelako. Elizarentzat oihartzun berezi-berezia du hitzak, Jesukristo ere bere garaiko boteredun politiko eta erlijiozkoen indarkeriaren biktima izan zelako.

Gure artean azken urteotan, borroka armatuan (Espainiako gerra zibilekoan edo ETaren biolentzia armatuaren inguruan) zuzengabeki hildakoak eta horien senideak aipatu ohi ditu bereziki. Edozein sistema edo egoera sozial eta politiko zuzengabetan, biktima edo zuzengabeki kaltetu nagusienak, erabatekoak, indarkeriaz hildakoak dira, jakina, –bizia, indibiduala nahiz kolektiboa, galzorian jartzea da, izan, gatazka-arrazoirik larriena–. Hori horrela izanik, bestelako kaltetu ugari egon ohi da tartean: sistema edota indar ekonomikoen eraginez langabetuak edota pobretuak, beren eskubideetan ukatuak eta zapalduak, gizartean duintasunik gabe baztertuta bizitzera “behartuak”, inoren erasopean pertsonalki, sozialki nahiz politikoki jarriak, goitik ezarritako politikaren ondorioz beren kultura-hizkuntzen aldetik murriztuak eta gutxituak: horrelakoak eta bestelako asko dira biktimak edo zuzengabeki kaltetuak. Gure gizarteari eta Herriari dagokienez ere, askotarikoak dira zuzengabeki kaltetuak, lehenagoak, lehenagotikoak eta oraingoak.

<sup>15</sup> J. M. Setienek bere aipaturiko artikuluan oharrazten gaitu, nola gerta daitekeen Eliza gatazka sozialaren sortzaile, ez “justizia egiteagatik” bakarrik, eta bai injustiziazko egoerak bermatzeagatik ere (*Conflicto cultural...*, aip. lib., 21. or.).

<sup>16</sup> Arazo honen inguruan gogoeta kritikorako hainbat galdera jartzen dizkio Euskal Herriko Elizari behin eta berriro aipaturiko artikuluan (ik. 29-35 or.).

Normala eta bidezkoa da mota bakoitzeko kaltetuak elkartzea beren eskubideak eta eskubideak gizartearen eta agintarien aurrean ipintzeko. Gizartea zuzenbideratu nahi duten agintari eta gizarte-eragileei dagokie kaltetuen “fenomeno” sozial eta politikoa osotasunean hartzea, horren sustraiak eta deribazioak sakonetik aztertzeko, eta kaltetuen sektore bakoitzari kalte-ordain eta irtenbide zuzenak eta iraunkorrak eskaintzeko, gizarte osoaren adiskidetzeta eta baketzeari begira.

Gertatu, zera gertatzen da, ordea, sarritan: Biktimen arazoa eginbehar sozial eta administratibo baino gehiago arma politiko bihurtzen dela, eta kaltetuen sektore jakin bat banderatzat hartzen dela bestelako interes politikoen mesedetan. Areago, biktima batzuk bestelako biktima batzuen aurka jartzen dira, horrela biktimen fenomeno lazgarri osoaren eta mota bakoitzaren sustrai-sustraietan dauden arazoak ezkutatatu eta horren erantzukizun politikoa uxatu nahian edo. Horrela “erabilitako” biktimen kausa “sektoriala” –partidistata?– bihurrituta geratzen da orduan, eta biktima guztien kausa indargabetuta.

Ugariak dira, beraz, Euskal Herriko eta gizarteko gatazkak. Askoren sustraiak, berriz, historikoak dira: antzinatikoak eta sakonak. Horietara jo behar da biktima guztien aldeko politika zabala eta eraginkorra egingo bada.

Garai bakoitzeko biktima kaltetuen aldeko politika beharrezkoa da. Baina, azken batez, “biktimen politikatik” –unean unekotik– luzarorako AMNISTIAREN politika iraunkorrera pasa behar da, Herri eta gizarte honentzat sakoneko bakebide zuzenen bila.

Euskal Herriko Eliza bera dago barnetik ukituta, eta nolabait nahastuta, gatazka horietan. Badu zereginik horien konponbidean, ez elkarriketa eta negoziatioetako bitartekaritza eskainiz bakarrik, eta bai bereziki bere barne-komunioaren indarrez eta eraginez ere. Oihartzun ozena eta eduki teologikoa ditu Elizarentzat Amnistiak. Okerturiko eta bekatuzko sistema eta egoera soziala –gatazka sozialen sua– zuzenbidertzeko baliabidea da Amnistia, Bibliaren arabera, haren ondorioz kalteturikoen edo biktimen mesedetan eta kalte-ordainetan, eta gizarte osoaren oreka zuzenaren, adiskidetzaren eta bakearen bila. Pobreen (pobretuen, zapalduen, baztertuen eta minorizatuen) aldeko lehentasunezko aukera ebanjelikoaren ildo beretik doa, beraz, Amnistia.

Gatazkaren azpiko faktore eragileak gaingiduz, Aministiatik abiatu behar du sakoneko errekontziliazio eta adiskidetzeta sozialak. Horrela bakarrik bideratu ahal izango du Euskal Herriko Eliz komunitateak ere bere barneko oinarritzko adiskidetzeta, gero eta elkar-tasun –komunio– handiagoa helburu.